



**2022KO URTARRILAREN 10EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko urtarrilaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2021eko abenduaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPEN BIDEZ ONARTUTAKOEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren, eguberriak direla eta Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurarik egin ez denez, alkatezaz onartutakoen berri eman da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

**III.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2021eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 79 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMAIKA MILA LAUEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI euro ETA HOGEITA ZAZPI zentimo (11.458,27 €)takoa onartzea erabaki da.

**IV.- MIKELARGO BERRURBANIZAZIOAREN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA .-**

Mikelargo berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lan hauen 2. obra egiaztagiria egin dute. Bigarren obra egiaztagiri hau, BERROGEITA HAMALAU MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITTA HAMAIKA euro ETA HOGEITA HIRU zentimokoa (54.751,23 €) da, BEZ barne.

Lanak Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresa ari da burutzen.

Gaia aztertu ondoren, tokiko gobernu batzarrak, aho batez, obra egiaztagiri hau onartu egin du.

**V.- GURUTZE GORRIAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA.-**

Lazkaoko Udala eta Gurutze Gorriaren artean lankidetza hitzarmena izenpetzea planteatu da. Lankidetza hitzarmen horretan jaso da Lazkaoko Udalak antolatzen dituen

eta jende asko biltzen den ekintzatan segurtasun eta prebentzio neurriak eta osasun eta ebakuazio baliabideak edukitzera behartuta dagoela. Eta jaso da baita ere antolatutako ekintza horietan Gurutze Gorriak prebentzio eta laguntza emango duela.

Lazkaoko Udalak, Gurutze Gorriak emandako prebentzio eta laguntza horrengatik urtean bost mila euro (5.000 €) emango dizkio. Zenbateko hau bi zatitan banatuta ordainduko zaio 2022ko aurrekontuaren 481.03.231.00 partidatik.

Hau honela, eta alkatearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, lankidetzaz hitzarmen hau onartu egin du.

#### VI.- GOIEKIRI 2022KO EKARPENAK.-

Goierriko Garapen Agentzia S.A.k (GOIEKI) bere partaideak diren udalek 2022rako egin beharreko ekarpenak planteatu ditu.

Ekarpenak udal bakoitzak dituen biztanleen arabera dira eta Lazkaori honako ekarpenak dagozkio:

- Ekarpenerokorra	52.009,69
- Gizarte arloko ekarpena	5.830,00
- Berrabiarazi proiekturako	12.806,00

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, GOIEKIri 2022ko ekarpen hauek onartu egin ditu aho batez.

#### VII.- BENEDITARRAK FUNDAZIOARI 2021EKO AMAIERAKO EKARPENA ETA 2022KO EKARPENA.-

Alkateak egindako proposamenaren bidez Lazkao Beneditarren Fundazioari honako ekarpenak egitea planteatu da:

- Alde batetik, teiltatuaren mantentzea eta galdararen aldaketa gastuei aurre egiteko, 2021eko aurrekontuaren 481.05.332.20 partidatik 2.000 €ko ekarpen berezia egitea.
- Eta bestetik 2022ko urteko aurrekontuaren 481.05.332.20 partidatik 22.000 €ko urteko ekarpena egitea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Beneditarren Fundazioari proposatutako ekarpenak egitea onartu egin du aho batez.

#### VIII.- SASIETA MANKOMUNITATEARI 2022KO EKARPENA

Sasieta Mankomunitateak bera osatzen duten udalek 2022an egin beharreko ekarpenak planteatu ditu.

Planteamendu horren arabera Lazkaoko udalaren 2022ko behin-behineko ekarpena 511.715,41 € izango da.





## LAZKAOKO UDALA

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Sasieta Mankomunitateari, 2022 urtean, 511.715,41 €ko ekarpena onartzea erabaki du aho batez.

### IX.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako dirulaguntza hauek onartzea erabaki du:

#### - Lemniskata elkarte.-

2021ean egindako jarduerengatik, 2021 urteko aurrekontuaren 481.03.334.01 partidatik 2.000 €ko dirulaguntza ematea.

#### - Pedro Castelo Pecos.-

2021ean egindako jarduerengatik, 2021 urteko aurrekontuaren 480.01.334.00 partidatik, 500 € ematea.

### X.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskera batzordetik 2021ean euskara eskoletako ikasturtea amaitu duten ikasleei dirulaguntzaren amaierako ordainketa egiteko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, egoera horretan dagoen eta bere espedientean azaltzen den ikasle bakarrari 2021eko aurrekontuaren 480.01.335.00 partidatik 273 € ematea erabaki du.

### XI.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ikullu Razing Eskuderiak 2021eko uztailaren 2 eta 3an antolatutako III. Goilurrak rallya eta 2021eko abenduaren 11n antolatutako VII. Goierri Rally sprintaren gastuei aurre egiteko kiroleko zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako dirulaguntza hau ematea onartu du:

#### - Ikullu Razing Eskuderia.-

2021eko aurrekontuaren 481.01.341.00 partidatik 4.300 €.

### XII.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera Ekonomikoko batzordeak, Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2021eko urrian martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonuak ekarri ondoren, ekarri dituzten bonuen arabera dagokien merkatariei laugarren ordainketa egiteko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, dirulaguntza hauek onartzea erabaki du:

<b>Merkataria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Julen Irurzun Iraola (Oreka)	105 €
Igone Aramendi Aramendi (Xanu)	35 €
Maite Garmendia Etxeberria (Maitte)	685 €
Amaia Carro Y Otros CB (Hirutzulo)	180 €
Alaitz Zubizarreta Otegi (Magala)	210 €
Kemen	240 €
Oiana Berasategi Kerejeta (Bika)	30 €

Oiana Berasategi Kerejeta (Bika)	40 €
Jon Santos Martin	120 €
Galopar SL (Golok)	45 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>1.690 €</b>

Zenbateko hauetatik, udalak jarritako dirulaguntza zatia (% 25) 2021eko aurrekontuaren 471.02.430.00 partidatik emango da.

### XIII.- LANDA LURRA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landalur Arloko batzordeak, Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2021eko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarren hamaikagarren ordainketa egiteko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, dirulaguntza hauek onartzea erabaki du:

<b>Baserritarra</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Aitor Iztueta Barandiaran	225 €
Iker Sukia Mesas	655 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>880 €</b>

Zenbateko hauetatik, udalak jarritako dirulaguntza zatia (%42,86) 2021eko aurrekontuaren 471.02.430.00 partidatik emango da.

### XIV.- OSASUN ARLOKO DIRULAGUNTZA.-

Laukatu Elkarteari dirulaguntza emateko Alkateak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, dirulaguntza hau emateko honako erabakia hartu du:

#### - Laukatu Elkarte.

2021eko jardueragatik, 2021eko aurrekontuaren 481.01.311.00 partidatik 2.500 € ematea.

### XV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

